

BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA ETA SABINO ARANA AHALDUNA (1899)

1.- XIX. MENDE-HONDARRA: BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

1876. urtean indargabetu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizirik zirauten azken foru-hondarrak. Handik aurrera, kontzertu ekonomikoen erregimen berriaren eraginpean bizi ziren hiru euskal herrialde horiek.

Ezagunak dira, eta alderdi askotatik aztertuak, bestalde, erregimen horrek ekarri zituenak, gorago aipatu hiru herrialdeontzat. Besteak beste, gune administratibo berezi baten oinarriak eta erroak, gerora ere baliagarri izan zitzaizkienak hiruroi, autonomia zabalago baten esperantzan.

Bazen, hala ere, XIX. mende horretan indarrean zetorren bestelako gune juridiko bereizia, hain zuzen ere, euskal foru-zuzenbide pribatuarena. Desberdinak ziren, zernahi gisaz, hiru herrialdeen egoerak esparru horretan. Araban, bateko, Laudio eta Aramaioko udal mugarteetan Bizkaiko foru-zuzenbide pribatua zen aginduzkoa, beste horrenbeste jazotzen zela Aiarako eskualdean, bertako foru propio baten bidez. Bizkaian, aldiz, indarrean zegoen 1526. urte-ko Foru Berria, hainbat erakunde (oinordetza, senar-emazteen arteko foru-komunikazioa eta tronkalitatea) zirela aplikagarri elizateen lurral-

dean. Hirietan, bestalde, bitarikoa zen foru-zuzenbide pribatua, Gaztelakoa eta forukoa lurraldez aldamenekoak baitziren. Gipuzkoan, azkenez, ohiturazko sistema juridikoa zen nagusi, idatzizkoak zuzenbide pribatuaren edukia ez zuela ageriko erakusten.

Horiek horrela, 1876. urteko foru-ezabaketak ito larrian utzi zuen euskal sistema juridiko pribatua, bi-bitako eraginak baitzituen horrek gain-gainean: lehena, foru-sistema pribatua bera eraberritzeko iturrien agortzea, ez baitzen beste erakunde legegile-rik foru-herrialdeetan, Batzar Nagusiak indarrez desagertu eta gero; bigarrena, aspalditik zetorren bestelako ardatz indartsua, Espainia osorako zuzenbide pribatu eta bakarra nahi zuena.

Hartara, lehen urratsak emanak zituen Espainiako Konstituzioak 1812. urtean, lege-testu hartan ezin argiago aldarrikatu baitzen Espainiako Kode Zibil baterako gogoia eta nahia:

Art. 258: El Código Civil y Criminal y el de Comercio serán unos mismos para toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones, que por particulares circunstancias podrán hacer las Cortes.

Helburuak helburu, alabaina, mende osoan zehar iraun zuen sistema bakar baten gogo eta nahi hurak. Gorabeheratsu eta aldikatsu gertatu zela ere ezin uka. Batez beste, proiektuak eta saioak zerrenda luzean barruratu beharko lirateke 1888. urtea arte. Izan ere, orduantxe gertatu zen Espainiako Kode Zibil baten formulazio eraberetu eta moldatua.

Kode horrek, nolana ere, ezin izan zuen herrialdez herrialde bizi ziren sistema juridiko pribatuen indarra deuseztatu. Lehen-lehenak, kronologiaren ikuspegitik, Kataluniako, Balear Uharteetako eta Aragoiko sistemak. Orobat Nafarroakoa. Orain, Araba eta Bizkaia zetozen bide beretik, Galizia bera bazter utzi gabe.

Arazoa, beraz, bidean zen. Zer egin foru-zuzenbide pribatu horiekin, Kode Zibila aldarrikatu eta gero? Kontu zaharra zen hori, Espainiako kodegintza bezain zaharra. Jokaerak ere, sarri-sarri, kontrajarriak eta kontrakarrekoak. Katalunia eta Aragoi, esan legez, buru eta aitzindari izan ziren irtenbideen bilaketan.

Azken buruan, Kode Zibila egiteko Oinarri Legean ere (1888) nabarmen zen filosofia:

6. Kodeen Batzordeari entzun eta gero, Gobernuak Gorteei aurkeztuko dizkie, lege-proiektu bakarrean edo anitzetan, Kode Zibilaren eranskinak. Eranskin horietara bilduko dira probintzia edo lurralde desberdinetan irautarazi beharreko foru-erakundeak, gaur egun halakorik izatekotan.¹

Kodeak berak ere, bide beretik, esamolde zabalak erabili zituen halako arazoei aurre egiteko tenorean. Egundaino iraun dute horiek, edu edo molde desberdinetan, Kode Zibilaren atariko tituluak. Egun ere, eite bereko testua dator indarreko Kode Zibilean:

13. artikulua.

1. Espainian aplikazio orokor eta zuzenekoak izango dute atariko titulu honen xedapenek, legeen ondoreak eta legeen aplikaziorako erregela orokorrak zehazten dituzten neurrian, bai eta 1. liburuaren IV. tituluko xedapenek ere, azken titulu horretan ezkontzaren ondasun-eraentzari buruzkoak direnek izan ezik.

2. Gainerakoan, eta probintzietan nahiz lurraldeetan indarrean dauden zuzenbide bereziak edo foru-zuzenbideak oso-osorik errespetatuz, Kode Zibila ordezkotako zuzenbide moduan aplikatuko da, baldin eta ez badago probintzia nahiz lurralde horietako arau berezien arabera aplikatu beharreko ordezkotako zuzenbiderik.²

Bazen, beraz, foru-zuzenbide zibil horiek idazteko premia, eta euren erakundeak eta arauak hara bildu beharra, Kode Zibilaren inguruko eta mendeko eranskin batzuen bidez. Prozesuaren bizkortzaile izan zen, zalantzarik gabe, Manuel Duran y Bas jurista eta

¹ Urrutia, A. eta Urrutia, E. (2004): *Kode Zibila/Código Civil*. Deustuko Unibertsitatea/IVAP-HAEE. Bilbo. 70. or.

² *Ibidem*, 141. or.

politiko katalana³, bere buruarengan bildu baitziren une hartan beharrezkoen ziren bi tasunak: bateko, foruzaletasun sutsua, eta, besteko, Madrileko Grazia eta Justizia ministro izatea.

Bere horretara bi horiek bildu, eta bera izan zen bultzatzailer nagusia, behingo batez, herrialde desberdinetako foru-zuzenbide pribatu historikoak Kode Zibilaren eranskinetara bil zitezten, bilketa horren bitartean haietatik zer zen aginduzko eta zer indargabeko, egoki zertuta.

Esan gabe doa bide horretan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeotako foru-zuzenbide pribatua ere barneraturik zegoela. Berehala ezabatu zen Gipuzkoako foru-zuzenbide pribatu ohiturakoa, Arabakoa eta Bizkaikoa geratu zirela eranskin-hartzaile bakar.

Kontua, dena den, ez zetorren bare eta jabal. Zuzenbidea bera sortzeko eta eraberritzeko iturri berezkoak, hots, Batzar Nagusiak, jada desagertuak ziren. Zein erakundek, ordea, eraberritze horretarako ahalmena? Madrileko Gorteek? Bizkaiko Foru Aldundiak? Horra orduko gakoa, Bizkaia buruz gordin azalarazi zena, eranskin hori egiteko batzordea osatzeko orduan. Eztabaida horretan izan zen partaide Sabino Arana Goiri, eta hark eutsitako irizpidea argigarri izan daiteke ehun urte geroago, egoki erakutsi baitzuen berak Bizkaiko ahalmenen artean bazela foru-zuzenbide zibilari buruzkoa ere.

2.- SABINO ARANA GOIRI, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN AHALDUNA (1898-1902)

Sabino Arana Goiriren biografiak eta nonzeberriak ugari dira euskal liburugintzan. Sarri-sarri plazaratzen dira halakoak, eta

³ Durán y Bas, M.: «Memoria acerca de las instituciones del derecho civil de Cataluña», *Projecte d'apèndix i materials precompileris del dret civil de Catalunya*. Generalitat de Catalunya. Departament de Justícia. Barcelona: 1995. 1.etik 525.erako orr. Ikus, orobat, Herrero gutierrez, R. y Vallejo Ubeda, M. A. (arg.): *El Código Civil. Debates parlamentarios. 1885-1889*. Senatua. Madril: 1989. 2 liburuki.

haren ideiak behin eta berriro izaten dira eztabaidagai, besteak beste, euskal gizartean eragin handia duen abertzaletasunaren sus-traiak direlako.

Zernahi gisaz, oraingo honetan gaia Aranaren iritzietan sartzen den osterantzeko arloro etorriko litzateke, hain zuzen ere, foru-zuzenbide pribatura.

Baliagarri izan daiteke horretarako, laburpen gisa, Larronde ikertzailearen aburua, Aranak euskal zuzenbideari buruz zuen ustea ezagutarazteko. Haren esanetan, forua eta zuzenbidea berezkoak zituen Bizkaiak, inolako kanpo eraginik gabekoak eta euskal nazioaren eustazpi sendoak:

Le gouvernement et les lois.- Pour Sabino, les lois bizka-yennes n'ont souffert d'aucune influence extérieure. Le Fuero de Bizkaye -ensemble de lois écrites et de coutumes- était un véritable Code National, édicté par les Assemblées Générales de Gernika, qui étaient investies d'un pouvoir législatif souverain.⁴

Kode horren barruan, alabaina, zer-nolako zeregina zuen zuzenbide pribatuak? Horixe da galde daitekeena gaur egun, kon-tuan harturik Aranak, neurri handi batean, zuzenbide publikoaren ildotik lan egin zuela. Hari kezkarri zitzaion Bizkaiarentzat, eta, oro har, Euskal Herriarentzat, burujabetzaren eremua irekitzea eta berreskuratzea, formulazio zabal baten bidez.

Bazuen horretarako jakituria nahikoa, Aranak lege- eta zuzenbide-ikasketak egin zituelako Bartzelonan. Familia ere hara bertaratu zen, ama eta seme-alabak, eta Kataluniako hiriburuan bizi ziren 1883. urtetik 1888. urtea arte, gazteenek ikasketak burutu bitartean.

Aldikada horretako bizimodua ere, Jemeinek azaldu digu:

⁴ Larronde, J.-CL.: *Sabino Arana Goiri (1865-1903), fondateur du nationalisme basque centenaire de sa disparition*. Bulletin du Musée Basque. 2e semestre 2004, 164. zkia. 18.or.

En este año pasó con su madre y hermano Luis a Barcelona, comenzando con el curso 1883-84 sus estudios en las facultades de Derecho y Filosofía y Letras...Los estudios fueron interrumpidos en 1888, por la muerte de su virtuosa madre doña Pascuala (G.b.), acaecida el día 11 de Febrero.⁵

Gorostartzu dabil, berebat, garai horren adierazle, eta honetara dio:

Según Paulina allí “Sabino seguía estudiando la carrera de leyes pero sin afán; poco tiempo antes de exámenes es cuando se disponía a ello y siempre salía bien”.⁶

Jakinbide horren erakusgarri izan daiteke hark bultzaturiko *LAGI BIZKAITARRA ASTERTZEKO BAZKINTZEA* edo *CENTRO JURIDICO PARA EL ESTUDIO DEL DERECHO VIZCAINO*. Erakunde berri horren araudian jarraikoak ziren irakurgarri:

Art. 1º.- Los fines del “Centro Jurídico” son:

Llevar al ánimo de las gentes la persuasión de que la nación bizkaína ha mantenido incólume en todo tiempo hasta nuestros últimos padres, su originaria libertad.

Ilustrar la Historia General de Bizkaya y, más singularmente, la particular de sus Instituciones.

Y últimamente, hacer una recopilación lo más completa posible de sus Leyes Tradicionales escritas y no escritas a fin de que en su día sirvan de base para reedificar el alcazar jurídico, dentro del que ha de gobernarse Bizkaya, nuevamente declarada independiente.

Aurrekoaren esanak, bistan denez, nahitaez ekarri behar zituen ondorioa eta ondorengoa, eta horixe zen, hain justu ere, arloz arlo Bizkaiko foru-zuzenbidearen sail guztiak aztertzea, egitu-

⁵ JEMEIN Y LANBARRI, C. DE (1935): *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia Gráfica del nacionalismo*. Editorial Vasca, S.A. Bilbo. 207. or.

⁶ ASKOREN ARTEAN (1988): *Sabino Arana diputado*. Fundación Sabino Arana-Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo.

ra jakin baten arabera. Egitura horretan lege zibilak ere baziren; are zehatzago, honetara banatzen ziren aztergaiak zuzenbide zibilaren ikuspegitik:

Artículo 13º.- Dentro de la división de Leyes civiles se dará en primer lugar la noción de: a).-Leyes, b).-Fueros, c).-Cuadernos, d).-Usos y Costumbres, e).-Libertades y Franquezas, i).-Privilegio, j).-Mercedes, k).-Tierras, l).-Lanzas, m).-Acostamientos en la Edad Media y a virtud de la Pragmática de 20 de marzo de 1498 (que es la ley 7ª, libro 10 de la Recopilación española) y de la Cédula de 13 de abril de 1790.

Seguidamente se estudiará la disposición que previene que las Leyes bizkainas no pueden interpretarse sino que deben observarse a la letra.

Luego serán preferidas las que tratan a).-del derecho de los parientes a pedir para sí los bienes raíces que se venden, estableciendo las formalidades de que han de ir prendidas las ventas, b).-de la comunicación de bienes entre marido y mujer, disolviéndose el matrimonio con hijos, c).-del derecho de la vuda cuando el matrimonio se acaba sin prole y el viudo en igual caso, a gozar durante año y día los bienes raíces del conyuge premuerto, y que continúe disfrutándolos hasta la devoción de lo que aportó al consorcio, d).-derecho de los hijos de un matrimonio a que se les reserven íntegros los bienes que para aquel matrimonio fueron dotados o donados por el conyuge sobreviviente que pasa a segundas o ulteriores nupcias.

El derecho de troncalidad: a).-si constante matrimonio se compran raíces que vienen del tronco de uno de los consortes o se edifica en ellos y se hacen mejoras, lo hereden los parientes tronqueros, b).-necesidad del concurso de los dos conyuges para vender toda clase de bienes, salvo los gananciales, c).-la raíz comprada sean tenidos como de patrimonio o abolengo, d).-no se dé ni mande a extraño bienes y muebles habiendo parientes del tronco dentro del cuarto grado. De la libertad absoluta de testar: a).-todo varón o mujer con descendencia legítima puede dar o dejar a uno de los hijos legítimos o a nieto o descendiente de hijo o hija legítimo que haya falle-

*cido todos sus bienes y esto mismo se observe con los hijos naturales no habiendo hijos o descendientes legítimos, b).—en el poder para testar se puede dar facultad para la elección de heredero.*⁷

Horra hor, beraz, Bizkaiko foru-zuzenbidearen gairik pisuzkoenak, abertzaletasunak molde bereziarekin emanak eta azalduak. Badira hurrenkera horretan oinordetzari dagozkion autuak, hala alkar-poderosoa eta oinordekoa izendatzeko askatasuna, nola tronkalitatearen arazoak, xehe-xehe bertaratzen direnak. Ezin alboan utzi, bestalde, senar-emazteen arteko zinak eta minak, ondasunak direla eta.

Zernahi gisaz, bazen ordu hartan, eta gerora ere bada, Bizkaiko foru-zuzenbidean, erro-erroan dagoen arazo sakona, alegia, aplikazio-esparruarena. Hiriak, bateko, eta elizateak, besteko, bi lege desberdinetan bizi dira, historiari esker eta zuzenbide pribatuaren alorrean.

Bi-biok hurreratzeko ahaleginak aspaldikoak izanik, erpina izan zuten horiek bi multzoen arteko hitzarmenean, 1630. urtean. Testu horretan ezarri zen hiriek foru-zuzenbidea aukeratzeko abagunea, noizean behin erabili zutena, batik bat XVIII eta XIX. mendeetan.

Hartara, erakunde berriak ere aztergai izan behar zituen bi multzo horien arteko tirabirak:

Artículo 15º.- Como quiera que la legislación de la tierra llana o infanzonado, de Bizcaya, se diversificaba esencialmente de aquella otra que regulaba los actos sociales de los vecinos de las Villas y Ciudad de Orduña, se anotarán de ordinario las conordancias a la vez que las diferentes características de unas y otras sin deber omitir en modo alguno la causa de semejante dualidad de derechos.

⁷ CORCUERA. J. DE ETA ORIBE, Y. (1991): *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*. II. Liburukia. Eguzki argitaldaria. Bilbo. 260-268. orr.

*Tampoco debe callarse la tan importante circunstancia de que a las Villas y Ciudad se concediera el año de 1630 la facultad de aceptar las Leyes generales del país con expresión de que villas, en qué épocas y sobre qué materias jurídicas hicieron uso de aquella facultad.*⁸

Aurreko testua Gernikan da sinatua, 1896. urteko uztailaren 15ean. Testuaren sinatzaileak bi dira, Aranaren hurbilekoak eta Arana hil ondoko abertzaletasunean garrantzi handiko pertsonaiak: lehendakaria, Zabala eta Ozamiz'tar Aingeru, eta idazkaria, Pertika eta Matzu'tar Jose Mari.

Natorren, alabaina, bestelako harira, eta bidenabar esan dezadan laster izango zuela abertzaletasunak eta Aranak berak halakoak egiaztatzeko aukera, bi urte geroago, 1898. urtean, Aranak Bizkaiko Foru Aldundiaren ahalduntzea lortu baitzuen. Lehendabizikoz, abertzaletasunaren ahotsa entzungarri izan zen Bizkaiko gobernu-erakundean.

Haren zeregina, artez laburbildu du Larronde historialariak:

*A la Députation de Bizkaye, de 1898 à 1902, Sabino se retrouva bien seul et dut faire face bien souvent à une Assemblé franchement hostile ; ses principales interventions ont trait à la défense des Bizkayens d'origine, à la protection de la culture basque et à la solidarité des provinces basques.*⁹

Kontrakarreko giroa eta ingurumariak izan zituela ezin uka. Hala ere, Aranak aurre egin zion horri, haren biografoek erakusten dutenez:

*Cuando yo, en el desempeño de ese cargo, estaba perdiendo en silencio salud y vida...*¹⁰

⁸ Ibidem, 264. or.

⁹ LARRONDE, J.-CL.: *Sabino Arana Goiri (1865-1903), fondateur du nationalisme basque cetenaire de sa disparition*. Bulletin du Musée Basque. 2e semestre 2004, 164. zk. 24.or.

¹⁰ MARCOS DE URRUTIA (1954): *Arana-Goiri'tar Sabin en la historia de Euzkadi*. Ediciones Sabindiar-Batza. Baiona. 117. or.

Pero fue entonces cuando comenzó para el Maestro la época mas dolorosa de su vida... Oigamos también a este respecto lo que cuenta su hermana Doña Paulina: « En la Diputación tuvo mucho que sufrir de sus enemigos políticos, y cuando quería hablar, Aresti, que entonces fue presidente, agitaba la campanilla para imponerle silencio. Una vez fue procesado por algunos diputados, por hacerles echado en cara que todos allí no estaban por medios lícitos.¹¹

Esandakoa gorabehera, Aranak eta abertzaletasunak bazituzten arrazoi indartsuak Foru Aldundian parte hartzeko:

Dentro de aquella corporación, no se podía lograr el verdadero bien de Bizkaia. Indudable. Pero debió pensar, aunque tal no fuera posible, procurar un relativo bien... Otra conveniencia de entrar en la Diputación era la de disputar sus puestos a aquellas gentes que, adictas al poder central, su actuación administrativa no redundaba sino en consolidación de aquel mismo espíritu y poder al que servían... Arana-Goiri y sus amigos luchan con entusiasmo e inteligentemente. Y el pueblo de Bilbao y sus pueblos adjuntos responden. La batalla electoral arroja la cifra de 4.545 votos por Arana-Goiri.¹²

Hauteskundeen ondoren, 1899. urteko maiatzaren lehenean, Plaza Barriko eraikinean osatzen da Bizkaiko Foru Aldundi berria. Garai hartako Aldizkari Ofizialak ematen du horren albiste:

En la I. villa de Bilbao y Salón de Sesiones de la Excma. Diputación Provincial se constituyó ésta el día primero de Abril de mil ochocientos noventa y nueve, bajo la presidencia del Sr. D. Santos Ortega y Frías, Gobernador civil de la provincia y asistencia de los Sres. D. Enrique Aresti, Presidente de la Corporación, D. Fernando de Carranza, D. Aureliano de

¹¹ JEMEIN Y LANBARRI, C. DE (1935): *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia Gráfica del nacionalismo*. Editorial Vasca, S.A. Bilbo. 269. or.

¹² ASKOREN ARTEAN (1988): *Sabino Arana diputado*. Fundación Sabino Arana-Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo. 53-54. orr.

*Galarza, Vicepresidentes respectivamente de la Diputación y Comisión Provincial, D. Alfredo de Urquizu, D. Antonino de la Bárcenas, D. Gustavo de Cobreros, D. Emilio Vallejo, D. Isisoro León, D. Victoriano de Olalde, D. Ildefonso de Arrola, D. Antonio de Allende, D. Sabino de Arana y los suscritos Diputados Secretarios D. Nicasio de Veristain y D. José Cruceño, éste en funciones...*¹³

Berehala etorriko ziren erakunde osatu berrira Bizkaiko foru-zuzenbidea moldatzeko kezka eta arrangura, Madrileko ministerioak bultzatuta. Horretan ere, partaide sutsua, beste batzuekin batera, Sabino Arana Goiri ahaldun berria.

4.- BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILAREN ERANSKINA EGITEKO BATZORDEA: SABINO ARANAREN EKARRIA (1899)

Bizkaiko Foru Aldundiak batzarra egin zuen 1899. urteko maiatzaren bostean. Eguneko gai zerrendaren arabera, lehen-leheneko puntua zen Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren erakundeetatik zeintzuk aukeratu, gerora ere gorde eta indarrean egon zitezten, aurrerago esan bezalaxe, Kode Zibilaren aldamenean.

Aldundiaren lehendakariak, hortaz, lan hori gauzatu behar zuen batzordearen osaketa eztabaidatzeri ekin zion, Madrileko aginduaren arabera, letradu batzuen izendatzea baitzegokion Aldundiari.

Galarza ahaldun foruzaleak¹⁴ bere horretan azaldu zuen kontua:

Desgraciadamente no se halla Vizcaya en condiciones de poder ejercer el derecho de modificar las leyes de carácter político, porque habremos de atenernos a la situación legal que

¹³ BOPV-HAAA,1899-05-06, 1050.

¹⁴ Biografia-xehetasunak, in ETXEGARAI, J.: *Historias de Munguía*. Bizkaiko gaiak/Temas vizcaínos. BBK. Bilbo: 2003. 74 eta 75. orr.

*se nos ha impuesto por el Gobierno de España: pero de todos modos, existen circunstancias especialísimas que no debemos olvidar y que debemos tener siempre presentes dentro del mismo Derecho civil foral...*¹⁵

Haren jarduera, nolanahi ere, 1630. urtean Bizkaiko hirien eta elizateen arteko hitzarmenaz doa, testu horretan arautu baitzen arestian esandako hura, hots, hiriek Bizkaiko foruz-zuzenbidearen aldeko egitea. Aukera hori nork egin behar zuen argitu nahian zebilen Galarza:

*Y en definitiva, ¿quién ha de apreciar la conveniencia de la modificación? El mismo Gobierno. ¿Quién aplicará el Capítulo segundo de la Concordia? Nadie lo sabe, porque las Juntas Generales han desaparecido...*¹⁶

Horri irtenbidea emateko proposamena luzatu zuen Galarzak, batzordeak baino, Aldundiak berak egin zezan batzorde horren lana:

*Que se gestione cerca del Ministro de Gracia y Justicia, que sea la Diputación Provincial la que informe, en lugar de la Comisión especial á que se refiere ese Real decreto*¹⁷.

Sabino Arana askoz tinkoago ari da, legeak aldarazteko ahalmena nori dagokion argi-argi ikusten baitu:

... todos sabemos que el antiguo estado de Derecho se ha perdido y hoy sólo decide de todas nuestras cosas el Gobierno de Madrid, con los cuerpos Colegisladores de España...De suerte, que, á mi juicio, no es la Diputación Provincial la llamada á proponer al Gobierno las modificaciones que deben introducirse en el Derecho civil foral, sino la Comisión que el Gobierno designa en ese Real decreto, porque

¹⁵ BOPV-HAAA, 1899-05-23, 1102.

¹⁶ Ibidem, 1102.

¹⁷ Ibidem, 1102.

*venimos obligados á acatar aquello que el Gobierno mande, aquellas leyes que en Madrid establezcan para nosotros.*¹⁸

Puntu horretara iritsita, Aranak gordin azalarazten du non dagoen une hartan legeak egiteko iturria eta boterea, hain justu ere, Madrileko Gorteetan. Eurak dira, bakar-bakarrik, Bizkaiko foruz-zuzenbide zibila aldaraz dezaketen legegileak.

Egia esan, eztabaida hau betidanik agertu da zerbait labur eta esangura txikikoa balitz legez, Aranaren gintzan¹⁹. Aitzitik, berak dakar, nire ustez, Sabino Aranak foru-zuzenbideari buruz zuen ideia adierazlea eta erakusgarria.

Eztabaida, zernahi gisaz, ez da horretan agortzen. Cruceño ahaldun konstituziozale eta liberalak ez du inolako oztoporik batzorde horren partaideak izendatzeko, bereizketa egiten zuelako lege politikoen eta zuzenbide zibilekoen artean:

*... Entiendo, por lo tanto, que sin peligro ninguno, puesto que no se trata de discutir que instituciones forales de carácter político han de subsistir, porque desgraciadamente es indudable que el Gobierno no nos pregunta acerca de eso, sino acerca de las instituciones del Derecho civil que deben conservarse y de las modificaciones que en el mismo se imponen. Para esto, los mismo sirve la Comisión, que la Diputación Provincial...*²⁰

Galarzak bere horretan jarraitu arren, Arana, beste behin ere, bide beretik dator:

... á lo que me opongo es á que pueda entenderse que las Diputaciones actuales representan y sustituyen á las anti-

¹⁸ Ibidem, 1103.

¹⁹ Aipamen soilak in: ARANA-GOIRI, SABINO DE (1965): *Obras completas*. Editorial Sabindiar-Batza. Buenos Aires. 2379-2380. orr. ASKOREN ARTEAN (1988): *Sabino Arana diputado*. Fundación Sabino Arana-Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo. 61-62. orr.

²⁰ Ibidem, 1103.

*guas Juntas generales del país...Para mí, reviste la cuestión una mayor importancia, porque entiendo, que dadas las corrientes que se supone existen en el Gobierno, en favor de las regiones, la Comisión o la Diputación que intervenga con el carácter de informante, puede y debe extender su dictamen á los otros órdenes, al judicial, al administrativo, al económico, etc.; y en tal sentido, propongo que la Comisión, además de oír á la Diputación en pleno, debe consultar á todos los Abogados y Notarios que hayan hecho estudios especiales de estas materias, admitiendo asimismo los proyectos ó proposiciones que en forma aceptable se le presenten por cualquier hijo de Vizcaya, y publicando, por último, no sólo los acuerdos y las actas de las sesiones que celebren, sino los trabajos que lo merezcan para que la opinión se ilustre y el Gobierno se informe con las mayores garantías de acierto.*²¹

Cruceñok, berriz ere, bereari eusten dio, zuzenbide zibilaren eta politikoen esparruak bereiziz:

*Por lo tanto, la Comisión que se designe tendrá que limitarse á las instituciones de Derecho privado, y si otro fuera el carácter que se la diese y se creyera que también debía ocuparse del Derecho político ó del Derecho administrativo, yo sería el primero en oponerme á que Letrados extraños a la Corporación estudiaran estos asuntos, porque seremos, efectivamente, muy poco, comparándonos con lo que fueron las Juntas generales, pero algo somos todavía, y si de reorganizar la provincia y de resucitar las antiguas instituciones se tratara, la Excelentísima Diputación Provincial sería la única que rendirá ante el Gobierno y trataría con él tête a tête, de potencia á potencia, hasta conseguir lo que creyera conveniente. Insisto, por tanto, en que la Comisión, con las atribuciones que le concede el Real decreto, debe nombrarse cuanto antes, oponiéndose á que sea la Excm. Diputación Provincial la que evacue el informe.*²²

²¹ Ibidem, 1103-1104.

²² Ibidem, 1104.

Bozketa egin eta Galarzaren proposamena ez zen onartu, Galarza bera eta Arana izan baitziren horren eusle bakarrak. Aranaren proposamena ere tartean zen, eta Galarzak beren beregi eskatu zion bertan behera uztea. Aranak etsi ez arren, aurrera-biderik ez zuen izan Aranaren proposamenak, Arana, Galarza eta Urquizuren botoak bildu baitzituen, soil-soilean.

Horiek horrela, azken erabakia bestetik zetorren, eta, batzordearen kideak hautatzeko orduan, Aranak ahots ozenez egitea eskatu zuen. Lehendakariak berehala onartu zion, eta Galarza, Bolivar eta Veristain ahaldun izendatu ziren.

Hiru horiek izan ziren batzordekide, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, eta beste erakunde batzuen ordezkariekin batera. Hartara, Bilboko Abokatuen Elkargoak eta Burgosko Notarioen Elkargoak euren ordezkariak izan zituzten foru-zuzenbidearen eranskina egiteko batzordean.

Baina horrek, jakina denez, beste historia baten hariak dakartza. Badu horretan irakurleak osterantzeko iturrietara jotzeko aukera aparta, berrikitan argitaratu baititu Zuzenbidearen Euskal Akademiak batzorde horren lanak: *Actas de las Sesiones celebradas por la Comisión especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*. Bigarren argitaldaria (2004) faksimil erara egin da, lerro hauen egileak moldatua.

Gera bedi, hortaz, honako hau, Sabino Aranak behinola Bizkaiko foru-zuzenbidearen bilakaeran izan zuen partaidetzaren lekuko.

5. BIBLIOGRAFIA

Actas de las Sesiones celebradas por la Comisión especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900). Bigarren argitaldaria (2004) faksimil erara, Andres Urrutiak moldatua. Academia de Derecho Vasca/ Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo.

Arana-Goiri, Sabino de (1965): *Obras completas*. Editorial Sabindiar-Batza. Buenos Aires.

Askoren artean (1984): *Arana-Goiri'tar Sabin/Ome Arana naldia*. Idatz Ekintza S.A. Bilbo.

Askoren artean (1988): *Sabino Arana diputado*. Fundación Sabino Arana-Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo.

Corcuera, J. de eta Oribe, Y. (1991): *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*. II. liburukia. Eguzki argitaldaria. Bilbo.

Etxegarai, J. (2003): *Historias de Munguía (1883-1900)*. Bizkaiko gaiak/Temas vizcaínos. Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo.

Jemein y Lanbarri, C. de (1935): *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia Gráfica del nacionalismo*. Editorial Vasca, S.A. Bilbo.

Larronde, J.-CL.: *Sabino Arana Goiri (1865-1903), fondateur du nationalisme basque centenaire de sa disparition*. Bulletin du Musée Basque. 2e semestre 2004, 164. zki. 9-28. orr.

Marcos de Urrutia (1954): *Arana-Goiri'tar Sabin en la historia de Euzkadi*. Ediciones Sabindiar-Batza. Baiona.

Urrutia, A. eta Urrutia, E. (2004): *Kode Zibila/Código Civil*. Deustuko Unibertsitatea-IVAP. Bilbo.

Andrés Urrutia